

Krisia gorabehera, kalitatezko lanpostuak sortzen jarraitzen du eta hasieran aurreikusitakoak baino 11 pertsona gehiago kontratatu ditu.

Kutxabankek 56 profesional berri sartu ditu talentua erakartzeko prozesuan

- **% 25 zerbitzu zentraletan sartuko da, erakundearen funtsezko arlo espezializatu jakin batzuk indartzeko.**
- **Banka berriak eskatutako profilei erantzuten diete, Matematika, Ingeniaritza, Zuzenbide, EAZ edo Ekonomia Zientzietako prestakuntzarekin**

2021eko abuztuaren 31an. Kutxabankek talentua aukeratzeko prozesua amaitu du **beste 56 profesional** hartuta, hasieran aurreikusi baino **11 gehiago**. Kontratu berriak mugagabeak dira, banka berriak eskatzen dituen profil espezializatuei erantzuten diete, eta profil komertzial eta digital nabarmena dute.

Langile berrien **% 25** Kutxabankeko **zerbitzu zentraletan** sartuko da, eta erakundearen funtsezko arlo espezializatu jakin batzuetan lan egingo du; gainerako **% 75**, berriz, **bulego-sarean** hasiko da lanean. Kontratatu berrien **% 82k** lehendik ere bazuen edo izana zuen nolabaiteko lotura Bankuarekin.

Hautapen-prozesu honen bidez, langile kualifikatuen lanpostuak bete nahi izan ditu Kutxabankek, eta eraldaketa teknologikoaren prozesuari eta sektoreak eskatzen dituen espezializazio-eskakizun berriei erantzun nahi izan die.

Horregatik, sartutako gazte batzuek **Matematika** eta **Ingeniaritzetako** prestakuntza dute (**% 8**), ohiko Ekonomia, Enpresa eta Zuzenbideko titulazioekin batera. **% 35ek gradu bikoitza** du, **% 26k nazioarteko** esperientzia du, eta **10etik 7 emakumeak** dira.

Profesional berriek prestakuntza jasotzen jarraitu ahal izango dute, eta beren ibilbide profesionala garatu enpresa lider batean. Kutxabank Taldeko behargin edo langileak gaur egun **5.500 baino gehiago** dira, Bankuaren zerbitzu espezializatu etakoak barne.